

LAU-URDIRI
GOMENDIOZCO CARTA,

EDO

GUTHUNA

J. D'ETCHEBERRI, Saraco Dotor Miricuac.

AD MAJOREM DEI GLORIAM.



BAYONAN,

MATEO ROQUEMAUREL Imprimatçaillea eta Liburu-
faltçaillea baithan Apumayurco Carrican.

M. D. CC. XVIII

(Extracto de las *Obras Vascongadas del doctor labortano JOANNES D'ETCHEBERRI (1742)* con una introducción y notas por Julio de Urquijo é Ybarra, Paris 1907).

Jaincoac Guiçonari eman diotçan gauça hoberenetic, eta abantailatuenetic bat delarican mintçoa: cein pena eta neque handia den Munduan hambat hitzcuntça mueta differentetacoen içaiteaz.

JAINCOAC Guiçonari eman cioen gauçaric abantailatuena, eta premiazoëna içan cen mintçoa: ceren solasaren, eta hitcen bidez adiarazten baititu bere gogoan estaliric, eta gorderic daduzcan gauçac; baihalaber aditcen-ere bertceren izpirituco, eta gogoco pentsamenduac, Jaincoac berac baicic, nihorc ecin eçagut, ez jaquin ahal detçayuenac. Halatan gure arima hauc gorpputz ilhun hautan daudeino, nihoren gogoco berri jaquitecotçat behar tugu gogoco mandatariac, eta Aristoteles Filosofoen Princeac dioen eredura, mandatari hec dira hitçac. *Voces sunt signa conceptuum.* Arist. cap. 1. Per. 16. Gauça bera dio Agustín Eliçaco Dolor handiac-ere. *Verba propterea instituta sunt, ut eis quisque in alterius notitiam cogitationes suas proferat.* D. Aug. in ch. & q. 2. Hitça, eta mintçoa dira bat-bederac cer duen gogoan bertceri eracusteco, eta aguertceco. Platonec-ere hala dio. *Propter hoc nobis datus est sermo, ut præsto forent mutua voluntatis judicia.* Eman citçaicun mintçoa elkharren gogoetaco berriac elkharri eçagutcera eta aditcera emaiteco.

Hau da dohain bereci bat, gure Jainco Jaunac Guiçonari choilqui eman dioena: Ecen abre mutuec-ere içan arren guc beçala mihia, hortçac, eta ezpainac, guztiarequin-ere falta çaye mintçoa, Aristotclesec dioen beçala. *Nullum aliorum animalium sermonem habet, nisi homo.* Abretaric, edo animalietaric batec-ere eztu mintçoric baicic guiçonac. Halacotz arroçoin handirequin erran çuen Lucio Apulejoc-ere, *Omnium terrenorum nihil homine prætabilius prudentia dedit, cui quidem lingua & dentium vallum, & ipsius oculi venustas accesit: quod quidem aliis animantibus ad explendum victûs necessitatem, inferendasque ventri copias comparatum est; sed homini promptuarium poliùs rectæ rationis, & suavissimæ orationis datum est, ut quæ prudentia corde concepit, ea sensu premat oratio.* Munduco gauça gucien artean, ezta jeus-ere Guiçona baiño abantailatuagoric, ceren bertce animaliec hortçac eta mihia içan arren, ezbaitituzte gosearen, eta egarriaren assesiatceco, janbariaren eta edariaren sabelera sartceco, garrajatceco, jateco eta edateco baicic. Baiña Guiçonac eguinbide horiez campoan ditu, bere bihotcean dituen gaucen hitceaz aditcera emaiteco. Ceren hitça, eta mintçoa eguiten baitira barre-netic atheratcen dugun aireaz, mihiaz, eta ezpainez.

Ordea hitçac batçuetan dira eguiatiac, eta bertcebatçuetan gueçurtiac; hala-nola gauça eztirenen berriac ekhartcentuena, baita mandatari gueçurtia, eta diren gaucen berriac leyalqui eta fidelqui emaiten tuena, baita eguintia; guisa berean bada ahoco hitçac dira bihotceco, eta gogoco mandatari eguiazcoac, edo gueçurtiac; Baldin gogoan, eta bihotcean duguna, aguertcen badugu mihian, eta hitcetana; orduan diogu eguia, eta hitçac dira eguiazco mandatariac: Bainan gogoan, eta bihotcean duguna, ez badugu eracusten hitcetana, baicic gogoan bat eta mihian bertcebat (ascotan guerthatcen den beçala) orduantche date gueçurra, eta hitçac dirateque mandatari gueçurtiac, Theologoec diotenaren eredura. *Mentiri est ire contra mentem*. Ceren baitira gogoan dugunaren contracoa aditcera emaiten darocutenac, eta handic hitz gueçurtiez enganatuac guelditcen gara, ceren ezbaitarocute, dena den beçala aditcera emaiten; eta alabaina bertce maneraz ecin jaquin baiteqaquegu bertceren gogoco berriric, non ezten hitcen eta erranen bidez.

Eguia içan-arren mintçoaz, eta hitcez bertce gaucez-ere, geure gogoac eta bihotçac, eta hetan ditugun gauçac aditcera bertceri emaiten diotçagula; hala-nola kheinuz, beguiez, escuez, edo buruaz, ezquilla, eta trompeta soinuaz, edo cein-nahi bertce seinalez. Ordea penaz, eta nekhez, eta halere eztugu hetaz gogoan dugun guztia hitcez beçala aditcera emaiten; hargatic erran çuen Agustin Eliçaco Dotor Sainduac ere. *Verba obtinuerunt principatum, significandi*. Hitçac dira gaucen adiarazteco lehenbico herronca daducatenac: Eta bertce gaineraco kheinu, eta seinaleac eztira hain segurac, ez eta-ere hei hurbiltcen çaitzeuac: ceren kheinuz, hainitz gauça ecin eman baititezque aditcera, mintçoaz beçala: Edo bertcela considera beça bat-bederac, baldin mutu baliz, eta ecin mintça balite, bere gogoco gauçac bertceri nola adiaracico liotçaqueen? halatan beraz, nihorc ecin erran diro, cein ontasun, eta dohain handia eman çarocun Gure Jainco Jaunac, mintçoaren, eta hitzcuntçaren emaitiaz.

Ecen mintçoric, eta hitzcuntçaric içan ez baliz gure artean, nola bico guinen mundu hunetan? Munduac nola iraunen çuen? bat bederat nola emanen çuen aditcera bere arroçoina eta çucena? Bere ondicoa nola bertceri erranen, eta contatuco cioen? Mintçoric, eta hitzcuntçaric içan ezbaliz, norc cer irakhatsico çuen? Legueac norc eta nola eguinen cituen? Mundua norc gobernatuco çuen? Ceini bere çucena nola emanen, eta beguiratuco ciçayoen? Bat-bedera bere ondicoan, eta atsecabean norc consolatuco çuen, mintçoric içan ez baliz? Eta guztien gainetic nola salbatuco guinen, eta ikhasico guenduen Ceruraco bidea? Federic gabe nihor ecin salba ditequenaz gueroz? Apostoluac dioen beçala. *Sine fide impossibile est placere Deo. Hebr. 11*. Federic gabe nihor ecin dateque

Jaincoaren gogaraco: eta fedea nola ardiesten da? *Fides ex auditu. Rom. 10.* Entçunez: eta fedearen entçutea ecin dateque, baicic Jaincoaren hitcez : *Auditus autem per verbum Christi.* Hitçaren bidez emaiten çaicu beraz fedea, eta hitcez irakhatsi citçayoan Mundu guciari Jaincoaren ganaco, eta salbatceco bidea ; ceren JESU-CHRISTO gure Salhatçaillearen Apostolu Sainduac hitcez predicatu baitçuten Mundu-herri guztian Jaincoaren fede saindua: *In omnem terrant exivit sonus eorum, & in fines orbis terrae verba eorum. Psalm. 18.* Mundu-berri gucia jo çuen hequien soinuac, eta mintçoac, eta Munduaren bazterretaraino joan ciren hequien hitçac.

Mundu hau bada bere oinean badago, mantenatcen bada, legueac eguiten badira, nori bere çucena beguiratcen baçayo, jaquintasuna, eta escolac irakhasten, eta ikhasten badira, Hirietan, eta Herrietan Gendeac elkharrequin bici badira, eta gucien gainetic baldin salbatcen bagara; ontasun, eta fagore hauc guztiac heldu çaiçquigu mintçotic, eta hitz eguitetic.

Hemendic ikhusten duçu beraz, cein dohacabetasun handia liçatequen Munduarentcat, baldin gure artean hitzcuntçaric ezbaliz; bai-halaber cembat fagore, eta laguntça on daccartzquen mintçoac berequin? Hargatic erraiten ohi çuen Demetrio Phalereo jaquintsunac, eta çuhurrac: Guerlan harmec eguiten dutena; baquean mintçoac, eta solas onac eguiten duela. Ceren guerlan gauça guztiac irabazten baitira indarca, bortchaz, eta garaitiaz: Bainan baquean hitz onez, eta arroçoin goçoez ongui eguiten dira eguitecoac. Hala erran çuen Pyrro Epiro Albaniaco Erregueac-ere (Borsonioc dioen beçala, *lib. 4. c. 32*). Bere harma guciez baino Hiri guehiago garaitu, irabaci, eta ardietsi cituela hitz onez, eta arroçoin goçoez. Halacotz Espiritu Sainduac-ere erraiten darocu Ecclesiasticoaren ahotic; Soinu goçoa, eta ezitia eguiten dute manyurac, eta psalterioac: ordea hec biac baino abantailatuagoa da mihi ezitia, eta goçoa. *Eccles. 40.* Esquerrac emaiteco diotçagu beraz gure Jainco guztiz onari, ceren mintçoarequin eman baitarozquigu hambat ontasun, eta abantail bereci.

Jaincoac Mundua ez deusetaric eguin çuenetic ondoco demboretan, Mundu-herri gucian milla çazpi ehun eta laur-hogoy urthez Babyioniaco dorrerainoco demboretan, Isquiribu Sainduac dioen eredura: *Erat autem terra labii unius, & sermo eorumdem. Genes. 11.* Ez ohi cen hitzcuntça bat baicic Mundu-herri gucian.

Gauça bera erraiten darocu Agustin Dotor Sainduac-ere. *Unam sanè linguam primitùs fuisse didiscimus, antequàm surperbia turris illius post diluvium fabricatè in diversos signorum sonos humanam dicerat societatem. Aug. lib. 9. Gen. ad litteram, cap. 12.* Orduan guciec elkhar aditcen

çuten, guciac hitzcuntça batez, eta hitz batçuez-berez mintçatcen ciren; Munduaren bazter batecoac baldin bertce bazterrecoarequin eguitecoric baçuen, edo batu bertcearequin batcen bacen, elkhar aditcen çuten, ceinec bere ethecoa beçain errazqui, eta-hala aisia handian bici ciren; ceren hitzcuntça bat bera baicic ezбайçuten.

Oray badaquit galdeguinen darotaçula, cein othe cen bada lehenbicoico hitzcuntça bakhar hura? Eta berehalache banohatçu Agustin Eliçaco Dotor handi, eta Sainduarequin errepustaren emaitera. *Quaecumque autem illa lingua fuerit, quid attinet quærere? Aug. ubi suprâ.* Dio, cein nahi içatu den hitzcuntça hura, cer balio du, haren ondoan ibiltceac? Halarican-ere hainitz presunaya handi, eta jaquintsun içatu içan dira, eguiteco huni borthizqui jarraiqui içatu içan çaiçconac; eta hetaric bat içan cen, Psammetico deitcen cen Erregue hura, ceinac eman baitciotçaten bi haur sorthu-berri artçain batçuei, bere abren artean hazteco, behin-ere hequien aiticinean hitcic mintçagabe, nihor entçunez, hitzquetan ikhas etceçaten gatic; ceren iduritcen baitciçayoan, haurrac berac elkharren artean cembait hitzcuntçaz, edo bederen cembait hitzcez mintçatuco cirela; eta halaco hitzcuntça ahal çatequela, Munduan içan cen lehenbicoicoa.

Haci cituzten haur hec, bi urthez ahuntcen artean; behin-ere hequien aiticinean hitcic mintçatu gabe, eta bi urtheac iragan cirenean; behin abelçainac etcholaru aguertu cirenean, haurtto hec, bere escuttoac hedatcen cituztelaric hequien gana; erran çuten hitz bai (1) doidoaya, eta hitz hura cen BEC: eta handic berehala eraman cituzten haur hec hitz harequin Erreguerengana, eta halaber Erregueren aiticinean-ere erraiten çuten hitz hura bera BEC, bertceric batere erran gabe: Eta ceren Phrigiaco hitzcuntçan BEC erran nahi baitçuen oguia, uste ican çuen Erreguec, Phrigiaco hitzcuntça cela Mundu gucian içan cen lehenbicoico hitzcuntça.

Ordea hau da frogu bat, Erreguec here gogoan cerabilan gauçaren jaquiteco jeusic frogatcen eztuena. Ceren haur hec nola bethi haci içan baitciren ahuntcen artean, behin-ere bertceren mintçoric entçun gabe, etcen miresteco ahuntcen jambatic har ceçaten, hitz haren erraitea; ceren ahuntçac-ere halatsu eguiten baitu bere jamba BEC.

Eta oraino bertce-alde; ceren nihorc bere baitharic ezбайtu hitzcuntça jaquinic; baicic bertcelaric entçunez, eta adituz ikhasten da mintçatcen, eta bat-bedera cein-ere herritan, eta genderen artean haurdanic hazten baita, haugo hitzcuntça hartcen du, eta hau norc dio? Baicic Agustin Sainduac. *Eadem loquelæ natura in hominibus permanet, nisi consuetudo*

(1) Bat.

diversa deviare ab alterutro docet. Latinus namque, vel Græcus inter, Barbaros genitus, vel nutritus Barbaricè loquitur. Versâque vice, Barbari filius à Græcis, aut Latinis edoctus, venusto semone fatur. D. Aug. lib. 1. de mirabil. sacræ Scriptur. cap. 9. Nahiz Latin-herrico umea, nahiz Greciacoa barbaroen artean içan dadin jajoa, edo hacia: barbaroqui, eta moldegaizqui mintçatuco da. Eta contrara, Barbaro Salbayaren semea Grecoez, edo Latintarrez irakhatsia, eta escolatua içan den ondoan, bokhantça haudirequin eta ederqui mintçatuco da.

Halacotz haur gaztetto bat bere içanez, eta ethorquiz licelariç, Greciarra: eta sorthu, eta berehaladanic haz baledi Escual-herrian; segur da, elitequela, mintça Grequez, baina bay Escuaraz: Eta halaber Escualdun umea haz baledi Grecian, sorthu, eta berehala danic; eguiaz eliteque escuaraz mintça, baina bay Grequez: Eta hunen arroçoina da, ceren gure mintçoa baita, chirolaren, edo flautaren soinua beçala; chirolari haice eman eta soinu eraguiten çayon manera berean, guc ere eztarriari, chirolari beçala haice emaiten diogunean, haice hura mintço eguiten dugu. Chirola soinuac bere içanez mudantça jaquinic eztu, baicic erhiez, eta haice emaiteco manera differentaz, soinu, eta mudantça differentac eraguiten çaiçco: Halaber gure mintçoac-ere bere baitharic eztu hitz jaquinic, baicic hitcen differentciac lehenbiciric ikhasiric, mintço bat bera delarican gure baithan, mintço hari berari hitcen soinu differentac eraguiten diotçagu. Ecen, Guiçonac eztuelarican mintço bakhar bat baicic, mintço hartaz beraz mintçatcen da Escuaraz, Grequez, Latinez, edo cein-nahi hitzcutçaz. Halatan beraz ethorquiz, eta geura (sic) baitharic eztugu hitzcuntça jaquinic; eta Erregue harc-ere, halacotz etçuen ongui frogatu, cein içan cen Munduco lehenbico hitzcuntça.

Bertce batçuec, gauça hunen arguitara emaiteco, entseyatcen ciren jaquitera: cein gendaqui içan cen. Munduan içen ⁽¹⁾ cen lehenbicoa, eta hequien arroçoina cen: ceren mintçoric gabe ecin baitciratezqueen, eta handic jujatcen çuten, bai-eta-ezbada hainen hitzcuntça behar cela içan, Munduan içan cen lehenbicoa.

Guehienic gauça hunen gainean iharduqui çutenac, içan ciren Justinoc, eta Diodoroc isquiribatcen duten eredura, Scytiatrrac eta Egiptoarrac elkharren artean. *Justin lib. 2. Diodor. lib. 1. cap. 1.* Halaber Ethiopiarrec uste çuten, hec cirela Mundu-herri gucico lehenbicoac. *Diodor. lib. 4.*

Bat-bederaren arroçoin guztien hemen ekhartcea, liçateque obra hunen

(1) Içan.

luçatcea, eta çure unhayarastea. Halarican-ere eguiteco hauquien berri jaquiteco gura duenac, mira betça, *Diodoro, ubi supra: Justino, ibidem, Homero Iliad. I & Odys. I. Pomponio Mela, lib. I. cap. 9. Gerard. in Chronologia.* Eta fite eta laburtzqui jaquin nahi tuenac, iracur beça Polidoro *Virgilio, lib. I. de inventione rer. de Monarchia Ecclesiastica.* Eta hetan, guciac, edo guehienac chehero causituco tu.

Bainan M. Catonec dioen beçala, eguia da, eta gauça hunen gainean iharduqui duten guciac aithortcen dute, Scythiarrac direla lehenbici-coac; ceren Justinoc dioen eredura, *lib. I.* Noe bere etchatiarrarequin uholdeco urac jausten hasi cirenean, han ilkhi baitcen barkhatic, eta han bici-ere içan cen ehun, eta hogoy eta hameca urthez, Munduan bertce genderic etcen demboran, *Beros. lib. 4.*

Eta nola lehen ezbaitcen hitzcuntça bat baicic, eta oraino orduan ezbaitcen nahasia hitzcuntça bakhoitz hura: Arroçoinez heldu da; Mundu-herri gucian içan cen lehenbicico hitzcuntça içan cela Scythiarrena, ceina oray deitcen baita Hebreoa, Jaincoac berac Adan lehenbicico Munduan içan cen Guiçonari, eta haren ondocoei eman ciotena, Munduan lehenbiciric mintçatu içan cen mintçoa, eta hitzcuntça, Agustin sainduac dioen beçala: *Hæc ergo lingua est, quam dicimus primitus datam Adæ & cæteris. Aug. qq. ex utroque q. 109.*

Clemente Erromarrac ere erraiten darocu; Mundu-herri gucico hitzcuntça içan cela Hebreoa, ez Guiçonac eguina, baicic Jaincoac Guiçonari emana; *Clemens lib. recogn.* Eta oraino gauça beraren erraitera itçultcen da Agustin saindu, eta Dotor handia, *lib. 16. cap. II.* Dio balda, hitzcuntça hau guelditu cela, Heber-en leinuan, eta egoquian, bertce guztiac, cein bere mintçoaren eredura, horrat hunat barrayatu cirenean. *Non defuit Domus Heber ubi ea quæ antea fuit omnium lingua remanneret.* Eta oraino dio: *Quia ergo in ejus familia remansit hæc lingua, divisus per alias linguas cæteris gentibus, quæ lingua priùs humano generi, non immeritò creditur fuisse communis, ideò deinceps Hæbrea est nuncupata.* Ceren haren etchatiarrean, eta familian guelditu baitcen hitzcuntça lehenago Mundu guciac çuen hau, bertce gendeac bere hitzcuntçaren aravera barrayatu cirenean, hargatic deithu içan da Hebreoa, eta arroçoinequin Sinhesteco da, hau içan cela Mundu gucico lehenbicico hitzcuntça.

Eta hitzcuntça hura bera nahasi içan cen hainitz bertce hitzcuntcetara, Babyloniaco dorre eguilleen urpillia cela causa; hitzcuntça hura guelditcen celarican bere içaitean. *Quam propter prlesumptionem turris ædificatæ credimus in multas dispersam & confusam, ut non jam hæc, sed multa ex hac inmutatione habita quorundam dictorum existerunt, ut unam haberent speciem, nec tamen deperiret, sed tota confusa esset cætesis linguis;*

Hemendic beraz ikhusten duçu, hitzcuntça Hebreoa dela gucietaric lehenbicoa, eta çaharrena: Bai-halaber da gucien artean hoberena, eta abantailatuena. Ceren Gure Jainco eguiazcoa lehenagoco Patriarca, eta Profeta Sainduei mintçatcen citçayenean, Hebreozco hitzcuntçaz mintço baitcitçayen. Eta oraino bertce-alde, Gure Salbatçaillea Guiçon eguin cenean, bertce hanitz hitzcuntça celarican Munduan, Hebreoa bereci çuen beretçat, eta hartaz mintçatu ičan cen; ceren haci eta jajo cen herrico hitzcuntçaz baliatu baitcen: eta hala erran deçaquet, bere aho sacratuaz altchatu, eta abantailatu çuela. Hitzcuntça huntaz-beraz mintçatu ičan cen Andredena Maria JESU CHRISTOREN Ama saindua. baita lehenagoco Patriarca Jaincoaren adisquideac, eta Profeta sainduac: baita oraino hartaz dauntça isquiribatuac Jaincoaren legue sainduco, eta fedezco isquiribu çahar guztiac.

Baina hau hunela delaric, Agustin sainduac dioen eredura, badira bertce hitzcuntça batçuec-ere abantailatuac *Omnium linguarum novi Testamenti tempore tribus linguis Hebraia, utique Graecae & Latinae Principatus committitur. D. August. lib. I. de mirabil. sacr. Script. cap. 9.* Evangelio sainduco leguearen demboran, hitzcuntça guztien buruça-guiac, dio, cirela Hebreoa, Grecoa, eta Latina; eta arroçoina emaiten du: Ceren Joandoni Joannis Evangelistac dioen beçala bere Evangelio sainduan: *Quia in eis Crucis CHRISTI Titulus litteris Hebraicis, Graecis & Latinis scriptus Evangelicâ autoritate perhibetur. Joan. I.* Ceren JESU CHRISTO Gure Jaunaren titulua, eta haren heriotce sainduco, Pilatusec eman çuen Sententcia, hitzcuntça hetan baitçauden letra Hebreozcoez, Grequezcoez, eta Latinezcoez isquiribiltuac: Arroçoinequin dira beraz hirur hitzcuntça haut, bertce guztien gainetic ohoratuac eta abantailatuac. Ceren bekhatu gucien barkhamendua, eta gure salbamendua, JESU CHRISTO Gure Jaunac ardietsi baitçarocun, Gurutcean iragan çuen heriotce sainduaz, orai aipaturicaco hirur hitzcuntça hetan isquiribatcen celaric haren beriotceco titulua, eta causa; eta bertce-alde, ceren bertce hitzcuntça gucietan baino, misteriozquiago baitaude isquiribu, eta legue saindu guztiac betan fintcatuac, eta isquiribatuac, eta arcan aberastasunac beçala altchatuac, gordeac, eta goardatuac, ceinac baitira gure arimetaco eguiazco aberastasunac. Halacotz bada nahiz-edo-ceinec nahi balu-ere eguin gucietaric hoberentçat bere herrico hitzcuntça, hainac jaquiteco du, hirur hauc ičan direla gucietaric abantailatuenac.

Ikhusi ondoan bada, mintçoa cein gauça premiazcoa, eta ona den, eta mintço bakhar bat baicic Mundu-herri guztian etcenean, Guiçonac cein aise bici ciren elkharren artean: orai ikhusi behar dugu bada, cein

pena, eta neque handia den, Munduan hambat hitzcuntça mueta different içateaz.

Eta gauçac ondoan hobequiago jaquilecotçat, lehenbiciric jaquiteco den gauça da: Nola Munduco bekhatuac, eta gaixtaqueriac cirela causa, Jaincoac Mundu guztia bere gende guztiequin urez itho, eta galdu çuen. Eta ceren Noe baitcen Guiçon prestua eta Jaincoaren cerbitçaria, bere etchatiarrarequin salbatu çuen barka batean barrena.

Noeren etchatiarrean biciric salbatu cirenac, ciren çorci presuna, Noe bere Emaztearequin, eta Sem, Cham, eta Japhet hequien hirur semeac, halaber here emaztequin.

Noeren emazten deitcen cen Phuarphara, Sem-ena Pharphia: Cham-ena Cataplua, eta Japhetena Phliva. (Eguia da, batçuec bertcela deitcen tuzte, *Epiphan. lib. contra hæreses. Tom. 2. hæresi. 26*). Ordea nola-nahi dariztela, ezta hau eguiteco bat.

Mundu gucia hala urez hondatu ondoan bada: eta urac appaltcen, eta jautsten hasi cirenean, eta lurra leihortcen, eta chucçatcen; Noeren barca hura guelditu cen Armeniaco mendi baten gainean, ceina deitcen omen baita BARIS, eta diotenez baitçatequen Munduco gorenataric bat, eta han ilkhi ciren barcatic Noe eta haren semeac bere emaztequin: Eta gauça hau guerthatu cen, Jaincoac Mundua eguinçuenetic çaspi ehun eta berrogoy eta bortzgarren urthean, eta Jaincoaren Semea Guiçon eguinen cen baino lehen; hirur milla eta berrehun eta laur urthez.

Çorci presuna hetaric bethe içan cen Mundu guztia gendez, eta Munduan diren gendaqui guztiec hetaric dute bere ethorquia. Noe bere gende guztiarequin Armenian guelditu cen, eta han ehun eta hogoy, eta hameca urthez bici içatu ciren ondoan: ethorri ciren hain gendatce, eta ozte handia eguitera, non ez baitçuten lekhuric asqui, Armeniaco herrian bicitceco. Eta oraiño bertce-alde: ceren Jaungoicoac manatu baitcituen Mundu guztia gendez bethe ceçatela. *Gen. 9*. Hargatic bada Noe mintçatu citçayen bere Semei, orhoitarazten cituelaric, Jaincoac eman ceraven meçu sainduaz; eta batbederari bete çathia, edo partea huciric, edo erreperturic: obligatu cituen lekhu hura utciric, joan citecin Munduaren gendaztatcera.

Europa daritçan gure alderdi hunetaco çathi hau huci eta eman cioen Japhet bere semeari, eguiten çuelaric alderdi hunetaco Buruçagui, Jabe eta Nausi. Halaber Sem eguin çuen Asiaco, eta Cham Africaco. Eta Noec guelditu çuen beretçat, hei irakhasteco cargua eta eguinbidea. Halatan Ovidioc dioen beçala (*Faust. 1*) Noe cen Mundu-herri gucico Buruçagui; eta bici ceino, ohi cebilan, Mundu-herri gucian aldebat (sic) bertcera, guztiei irakhasten ciotelaric Jaincoarentçateco amodioa, eta beldurta-suna, bai-halaber nola behar çuten adoratu, eta cerbitçatu.

Armeniatie abiatu cirenean bada: eta noiz-eta-ere sarthu baitciren Mesopotaniaco celhai, eta ordoqui ederretan; hasi citçaizcon elkharri erraiten. *Faciamus altam turrim. Gen. 11. supra Psal. 54.* Elkharganic barrayatu eta bereci baino lehen, daigun dorre gora bat, ceruraino hedatcen dena.

Dorre haren eraguille Buruçaguia, eta Aintcidaria cen Nembroth, (*Berosoc dioen eredura, lib. 4*). Ceina baitcen Chus-en semea, eta Chus cen halaber Cham madaricatuaren umea. *Gen. 10.*

Nembroth cen Guiçon haguitz urguillua, gaitça eta gaixtoa, obretarie agueri den beçala: ecen Jaincoaren coutra jaiqui cen; Gendeac bortchaz bereganatcen cituelarican: batçuec mehachuz (halacoec eguiten ohi duten beçala), eta bertce batçuec lausenguz eta escaintça ederrez engatuz. Halacotz hitz eta promes eman craven: baldin bertce uholderic ethortcen bacen-ere, harc beguiratuco eta goardatuco cituela, ur eta uholde gucien menetic eta arriscutic; ceren eguin uste baitçuen dorre bat, uholdeco ura igan ahal citequeen baino goragocoa: eta handic Ceruac iraganic, Jaungoycoari guerla eguin uste cioen; eta oraino, bertce alde, uholde hartan galdu cirenen heriotceez, mendecatu gogo çuen. Eta hala Gende dohacabe haut Guiçon madaricatu hunen hitcei behaturic; hasi ciren berotasun handi batequin, haguitz gogotic eta cincinez bere dorrearen eguiten, Senarco celhayean; uholdea iragan cenic ehun, eta hogoy, eta hameca urthe iragan ciren ondoan.

Lehen erran dugun beçala, orduraino ez ohi cen Mundu-herri gucian hitzcuntça bakhar bat baicic: *Erat autem terra labii unius, & sermo eorumdem. Genes. II.*

Isquiribu sainduac dio, Gure Jaincoac ikhusiric bada, Nembroth urguilluaren eta haren partçunereen itsutasuna: eta nola dorrea baitçaramaten aicina, eta oraino aicinago eraman gogo-ere bai: *Ecce unus est populus, & unum est labium omnibus, cæperuntque hoc facere, nec desistent à cogitationibus suis, donec eas opere compleant. Venite igitur descendamus, & confundamus ibi linguam eorum, ut non audiat unusquisque vocem proximi sui. Gen. cap. 11.* Nahasi ceravela guciei bere hitzcuntça, eta lehen bat baicic etcelarican, bat hura eguin cela hambat, non familia batec bertcea ecin adi baitceçaqueen. *Atque ita divisit eos Dominus ex illo loco in universas terras, & cessaverunt ædificare Civitatem. Gen. II.* Eta hala orduan, elkharganic barrajatu ciren, Mundu-herri gucirat, cein bere hitzcuntça bereciaquin: *Et inde dispersit eos Dominus super faciem, cunctarum Regionum. Gen. II.* Lekhu hura deithu cen Babylonia: *Et idcirco vocatum est nomen illius loci Babel, quia ibi confusum est labium universæ terræ. Genes. ibidem.* Erran nahi baitu nahasturaco lekhu;

ceren han nahasi baitcen Mundu-herri guztian cen hitzcuntça baxharra eta lehenbicoa.

Dembora hartaraino Munduko hitzcuntçac etçuen icenic: ceren bat. baicic ezbaiccen, etçuen icen beharic; eta-hala baxharra cenean, dio Agustin sainduac. *Quando autem erat una, nihil aliud quàm humana lingua, vel humana locutio vocabatur. D. August. lib. 16. Civit. cap. II.* Guïçonaren hitzcuntçaz bertce icenic etçuen.

Bainan, gueroztic, bertce hitzcuntceac ceinec bere icenac hartu cituzten beçala, lehenbicoari-ere eman citçayoen icena, bertcetariç içanez beracia ⁽¹⁾ cen beçala, icenez-ere berecia içan cedin gatic; hartaracotz ikhus çaçu cer dioten Agustin sainduac, *lib. 16. Civit. cap. 6. 9. II.* Eta Ambrosio bertce Eliçaco Dotor handiac, *lib. 2 de vocatione. Gen. lib. 2. cap. 46.* Epiphân. *lib. 1. contra Hæres. tom. 3. hæres. 39.* Genebrard. *in Chronicis.* Jornandes *de Regum succes.* Phreculp. *lib. 1. c. 32.*

Eta ceren Bahyloniaco dorre hura eguin nahi cutenequin Heber Jaincoaren cerhitçari, eta Guïçon prestu harc, ezhaitçuen nahi içatu partçuner içan, ez-eta-ere Jaincoaren contra altchatu: Hargatic bada Jaincoac-ere hari, eta haren etçatiarrari etcioten eman, bertcei eman ceraven pena: eta gaztigua. Aitcitic ohoratu cituen, utzten ceravelaric bere lehenbico hitzcuntça; eta lehen icenic etçuelaric, eman citçayoen Heber beraren iceneticacoa; eta-hala deithu içan cen eta egungo egunean-ere deitcen da Hebreoa; Mundu-herri guztian içan cen lehenbico hitzcuntça; eta Dotor Sainduac dioten eredura, hirur hogoy eta hameca hitzcuntça hetan nahasin guelditu icen (*sic*): Ceren Agustin sainduac dioenaren eredura, *lib. 1. de mirabil. sacræ Script. cap. 10.* Dorre madaricatu haren eguitera biribilatu ciren aitcindariac, eta leinu-buruçaguiac içan baitciren hain bertce. Hargatic dio bada Agustin sainduac-ere, nola Mundu guztia hirur hogay, eta hamabi leinu hec bethe, eta gendeztatu bailçuten; hei guztiei Evangelio saindua predica cequien gatic, JESU-CHRISTO Gure Jaunac bereci cituela Apostolu sainduen gainera (*Lucas Evangelistac dioen beçala, Luc, 10.*) bertce hirur hogoy, eta hamabi discipulu Evangelio sainduaren predicatcera bidaltceco Mundu-herri gucira. Bertce hainitz arroçoin-ere emaiten tu Agustin sainduac lekhu hartan berean; bainan oray asqui tugu haut, jaquiteco nola bekhatua dela causa, lehenago bat baicen etcen hitzcuntça nahasi cen, eta eguin ciren hainbertce mueta differentetacoac: Eguia da, gueroztic guehiago-ere nahasi dira, eta berretu; ceren egungo egunean bortz ehun baino guehiago, baitira Munduan; hargatic bada lehen

(1) Berecia.

aipattu dugun beçala orai ikhusico dugu, cein pena, eta neque handia den, Munduan hambat hitzcuntça differenten içaiteaz.

Lehen erran nuen aisia handia cela Munduan hitzcuntça, bat baicic etcenean; baina hitzcuntça hura nahasi, eta bat celaric hainitz eguin cenaz gueroztic; halaber erran behar da, neque handia guelditu cela Munduan Guiçonon artean; ceren ezbaita Munduan nihor, behar ahal ditequen, beçambat, hitzcuntça daquienic, edo ikhas ahal deçaquenic: Ceren nahiz biz Guiçona, nahiz emaztequia, nahiz Noblea, Emperadorea, edo Erregueren umea, edo haren leinucoa; nahiz ethorquiric appalletic, edo ttipienetic heldu dena; nahiz aberatsa, nahiz probea, nahiz gaztea, nahiz çaharra; baldin ugatcean dithiarequin edan çuen hitzcuntçaz bertceric ezbadaiqui; gauça segura da, hogoy egunen bidean bertce herrietaco hitzcuntcen behartu gabe, ecin dohaquela.

Nor da bada herri gucietaco hitzcuntça guztiac ikhas ahal detçaquena? Nor-ere nahi baita-ere, eta cembait hitzcuntça bere herricoaz bertceric ikhasten badu-ere; nola Munduan diren guztiac, adi, eta ikhas ahal detçaque, milla urthez bici baliz-ere? Egun guztiaz ikhusten dugun gauça da, cembat aldiz bertceren hitzcuntcen behartcen garen; eta Mundu hunetaco eguitecoac, cein nequez eguiten diren, hitzcuntcen diferencia dela causa. Cer progotchu da, Munduan hitzcuntçac Gendeen artean ičanagatic, baldin ecin adi badeçaque batac, bertceac cer dioen? Hargatic dio Amhrosio saindu eta Dotor handi harc: *Qui loquitur incognitâ linguâ, Deo loquitur, quia ipse omnia novit, homines verò nesciunt; ideoque nullus est ex hac re perfectus D. Ambros sup. 1. Cor. 14.* Bertce aditcen eztuten hitcez eta hitzcuntçaz mintçatcendena, Jaincoarequin mintço da; ceren Jaincoac baitaquizqui guztiac; baina Guiçonec eztaquizquite; eta halacotz aditcen ezten hitzcuntçaz mintçatceaz, ezta batere progotchuric. Ecen Escuararic baicen ezhadaquiçu, eta çure Escuara aditcen eztuen batequin eguiteco guerthatcen baçaitçu, elkhar nola adituco duçe?

Macrobioc erraiten du: bidean, lagun Solasturia bidea neque gutiz iragaiteco gauça ona da: *Comes facundus in via pro vehiculo est. Lib. 2. Saturnal.* Lagun Solasturiarequin bidean joaitea da, dio, bertceren oinez joaitea beçala; baina elkhar aditcen ezbadute bieç; Agustin Sainduac dioen eredura, bat-bedérac hobe luque bere chakhurra lagun, ecen ez aditcen eztuen laguna, edo presuna. *Diversitas linguarum hominem alienat ab homine, nam si duo sibi invicem fiant obviam, neque præterire, sed simul esse aliquâ necessitate cogantur, quorum neuter norit linguam alterius, faciliùs sibi animalia muta etiam diversi generis, quàm illi cùm sint homines, ambo sociantur: quando enim sentiunt, irater se communicare non possunt propter solam linguarum diversitatem, nihil prodest ad consociandos homines*

tanta similitudo naturæ! ita ut libentiùs sit homo cum cane suo, quàm cum homine alieno. D. Aug. lib. 19. Civit. cap. 7. Hainitz hitzcuntça mueta içaiteac Guiçona Guiçonaganic hastantcen, eta ezeztatcen du: Ecen guertha balite bia elkharrequin bidean joaitera, eta aitcinat ecin iraganez; ethor balitez elkharrequin guelditcera, baldin batat bertceren hitzcuntça aditcen ezbadu, errazquiago, eta hobequiago elkharri lagun eguinen diote bi abre mutuc ez içan arren mueta berecoac, ecen ez hec elkharri Guiçonac direlarican: ceren batat bertceari ecin adiaraz baiteçoque, cer duen bere gogoan; eta hitzcuntcen diferentcia dela causa, etçaye jeusere baliatcen elkharren iduritaco, eta naturuleça bereco içaitea, elkharri lagun eguiteco; halaco-moldez, non gogoticcago bailegoque Guiçona bere orarequin, edo chaccurrequin, ecen ez Guiçon hitzcuntça aditcen eztuenarequin; hauc dira Agustin sainduaren hitçac.

Mundu-herriguztian da pena, eta neque hau: ceren hainitz hitzcuntça baitira batat bertcea eztruditénac. Halacotz bada JESU-CHRISTO Gure Jaunac-ere, ceren Mundu gucian behar baitcen barrayatu, hedatu eta irakhatsi haren fede saindua, bereci cituen hirur hogoy, eta hamabi predicari, hitzcuntça hetan gucietan haren fede saindua predica ceçaquetenac; hala-nola Babyloñiaco dorretic ilkhi ciren hitzcuntçac hirur hogoy, eta hamabi içan baitciren: *Designavit septuaginta duos Discipulos.* Eta Mundu hunetacoaz eguinic cerueta igaiteco cegoelarican, manatu cituen bere Apostoluac. *Euntes in mundum universum, prædicate Evangelium meum omni creaturæ. Marc. 16.* Mundu-herri gucitic predica ceçatela haren fede saindua; eta oraino aguindu ceraven, haren fedean sinhesten çutenac. *Linguis loquentur novis. Marc. 16.* Mintçatuco cirela hitzcuntça berriez.

Ordea hala complitu-ere ceraven bere aguintça Mendecoste egunean, guciac casic ehun eta hogoy elkharrequin ceudecilarican, igorri çuen Espiritu Saindua mihien idurian barrayaturic hequien gainera: Halaco moldez non, bethe baitcituen hequien Arimac, eta bihotçac, eta hala: *Cæperunt loqui variis linguis. Act. 2.* Hasi ciren mintçatcen hitzcuntça diferentez.

Eta nola orduan Jerusalemen baitciren hambat gendaqui diferent Mundu herri gucitic ethorriac, eta hara bilduac: harritu eta espantatu ciren guztiac. *Quoniam audiebat unusquisque linguâ suâ illos loquentes.* Ceren batbederac aditcen baitcituen, nola mintço ciren batbederaren hitzcuntçaz: Eta hala miretsiric, hasi ciren elkharri erraiten: *Nonne omnes isti Galilæi sunt?* Eta nola haut Gallilearrac direlaric, entçuten eta aditcen tugu, Gugueroc haci garen herrico hitzcuntçaz mintçatcen! *Audivimus unusquisque linguam nostram in qua nati sumus. Act. 2.* Eta hambat mundu herri, eta lekhuetaco garelaric, eta bata bertcea ganic hambat Erresuma, eta Provincia diferentetaco: *Audivimus eos loquentes*

nostris linguis, magnalia Dei. Entçun, eta aditu ditugu Jaincozco gauçac, gure hitzuntceaz mintçatcen. Eta eguiazqui aldegutziz miresteco gauça cecusatzen, ceren Glosac dioen beçala: *Sermone Galilæi sunt hebetes. Glos. interlin.* Gallilearrac bere mintçoan eta hilcetan ez baitciren solas-turiac, ez eta-ere sobera agudoac.

Salbaitçailleac, ordea eman nahi içatu cioten dohain bereci hau: *Ut qui in proximo debebant dividi, acciperent linguarum notitiam. Glos. ord.* Ceren (Glosac dioen beçala) dembora laburric artean joan beharrac baitciren fedearen irakhastera; hartaracotz bada Mundu guztico hitz-cuntcen eçagutça eman nahi içatu cioten; bide hartaz interpreten, edo bitarteco adiaratçailleric gabe bere buruen adiarazteco.

Lehenago ceren Guiçonac urguilliaz jaiqui baitciren Jaincoaren contra, hitzuntçça bat baicic etcelarican, bekhatuaren gaztigutan hainitz-etara barrayatua içan cen. Ordea guero ondoan halaber Jaincoaren gana humilaturic eta haren legue saindua besaraturic; lehen urguilliac eguinicaco caltea, humiltasunac erremediatu çuen: Espiritu Sainduac barrayaturic ceudecin hitzuntççac, batbederetara biribillatcen cituelarican guztiaç. *Sirut enim per rebellionem ad Deum divisæ sunt linguæ, ita per infusionem Spiritûs Sancti sunt unitæ. Per superbos homines divisæ sunt linguæ; per humiles Apostolos congregata sunt linguæ. Spiritu superbiæ dispersit linguas; Spiritus Sanctus congregavit linguas. D. August. exponens illud. Genes. II. super Ps. 54.*

Eta oraino Agustin saindu eta Dotor handi hunec berac dioen eredura; *Unusquisque accepto Spiritu Sancta, linguis omnium loquebatur. D. Aug. in Ps. 18.* Espiritu Saindua errecibitu eta ondoan, Guiçon bat bera mintçatcen cen cein-nahi hitzuntççaz. Ceren Dotor saindu hunec dioen beçala. *Oportebat enim ita significari in omnibus linguis Spiritum Sanctus, quia Evangelium Dei per omnes linguas cusurum erat in toto orbe terrarum. Aug. trae. 6. in Joan. Epist.* Conveni cen, eçagut cedin Espiritu Saindua hitzuntçça gucietan; ceren Jaincoaren Evangelio Sainduac curritu behar baitçuen, hitzuntçça gucietaric Mundu-herri gucian barrena. Miracuillu hunetan berean da agueri, nola gure Jainco Jaunac: *Qui omnes homines vult salvos fieri, & ad agnitionem veritatis venire. L. Timoth. 2. D.* Nahi duen gucioc salba gaitean, emaiten daroz-quigularican Salbamenduco behar tugun bide guztiaç.

Ordea Salbatceco bidea da fede saindua: *Fides est quæ dat salutem. Ambros. sup. Timot. 2.* Dio Ambrosio sainduac; ceren: *Sinè fide impossibile est placere Deo. Rom. 10.* Joandoni Paulo Apostoluac irakhasten darocun beçala, nihor ecin baitaiteque Jaincoaren gogaraco fedea gabe.

Lehen ikhasi dugu bada, fedea nola ikhasten den: *Fides ex auditu.*

Entçunez; eta entçute hau hehar dela: *Auditus autem per verbum Christi*. Christoren hitçaren bidez.

Eta hala Apostolu sainduec, eta bertce Discipulu eta predicari, JESU-CHRISTO Jaunac bere fedearen irakhasteco bereci citueneç, Jaincoaren fedea, eta Evangelio saindua jaquin arren; baldin jaquin igan ezbalute, ceineç bere herrico hitzcuntçaz bertceric, eta guehienac cirenaz gueroztican Erresuma berecoac, Mundutic fedearen predicacera joan-agatic, aditcera nola emanen çuten, irakhatsi nahi çuten fedea? eta oraino arebaino guehiago, Glosac dioen beçala: *Sermone Galilæi sunt hebetes*. *Glos. interlin.* Ceren Gallilearrac bere mintçuan, eta hitcetari ezbaicitaren sobera agudoac; eta halacotz Munduac erran ceçaquen, erran çaen beçala: *Nonne omnes isti Galilei sunt?* Eta nola hauc eztira Gallilearrac eta mintço dira guisa hunetan? Bai: ceren nihorc aditu ezbalu hequieen hitzcuntça, nihorc ecin ikhasico baitçuen bere salbamenduco bidea: Eta Munduan den beçambat hitzcuntça delaric, heç guztiac nola eta noiz ikhasico cituzten Apostoluec eta bertce hequien lagun predicari sainduec? eta nola salba ahal citequeen Mundua, baldin Jaincoac eman ezbalio bere Eliça sainduari hitzcuntça guztiez mintçatceco dohain handi hau?

Hargatic bada ceren nihorc ecin jaquin baitcetcaqueen Munduco hitzcuntça guztiac; hargatic bada fede saindua-ere ecin irakhats, ez predica ahal cequioqueen Mundu guciari: ceren nihorc ecin jaquin baitceçaqueen Jaincoaren fedea, irakhasteric gabe. *Quomodò credent ei quem non audierunt?* Rom. 10. Entçun gabe, dio Apostoluac, nola sinhetsico dute? *Quomodò autem audient sinè prædicante?* Eta nola entçunen dute irakhasteric, eta predicariric gabe? *Quomodò autem prædicabunt, nisi mittantur?* Eta nola predicatuco çaye, baldin predicariac bidal ezbadatizte? eta predicariac bidalduagatic, cer progotchu icanen dute, baldin elkhar (1) adi ezbadetçale?

Haut guztiac eracusten darozquigu clarqui Joandoni Paulo Apostoluac, Corinthotarrei isquiribatu cioten lehenbico cartan, edo guthunean. *Si venero ad vos linguis loquens, quid vobis prodero, nisi loquar verbis, aut in revelatione, aut in doctrina? Tamen quæ sinè anima sunt vocem dantia, sive tibiâ, sive cytharâ, si distinctionem sonis non dederint, quomodò cognoscetur, quòd per tibiam canitur, aut quod cytharizatur? Etenim si incertum vocem tuba dederit, quis se parabit ad pælium? ita. & vos per linguam nisi significantem sermonem dederitis, quomodò scietur quid loquimini? Eritis enim, in aëra loquentes Tam multa, ut putà genera linguarum sunt in hoc*

(1) Elkhar.

mundo, & nihil sinè voce; Si ergo nesciero virtutem vocis, ero ei, cui loquor Barbarus, & is qui loquitur mihi Barbarus. D. Paul. I. Cor. 14. Cer progotchu içanen duçe nitaz (dioste Corinthioceoi Apostoluac) ni çuen gana ethorriagatic, baldin ezbanauquiçe mintça, adi naçaqueçuen beçala? (eta ceren gauçac asco orduz hobequi aditcen baititugu exempluz, eta comparacinoz, halatan ekhartcen derave instrument soinuozcoen comparacino bat, hobequiago aditcera-emaiteco, nola ezten progotcburic bertcec aditcen ez tuten hitzcuntçaz mintçatceaz). Baldin arima gabe diren gauça soinu eguiten dutenec, edo dela chirolac, edo manjurac ez badeçote eman soinuei mudantçaric, nola eçagutuco da, cer canta suerte den chirola chistua, edo manjura soinua? eta trompetac bethi soinu huts bat baicic eguin ez baleça, nola eçagutuco liçateque, noiz licen guerlaco deya? eta nor guerlara prestatuco liçateque? (erraiten derave oraino Apostolu handiac) baldin nihorc ecin adi cetçaquen hitcez, eta) hitzcuntçaz mintçatcen baciren, ea norc cer adituco çuen, hec cer mintço ciren? ceren soinu hutsa beçala aireari mintçatuco baitcitçaizcon: (*Ut quid enim loquatur, quem nemo intelligit ? D. Ambros. I. Cor. 14.*) (Dio Ambrosio sainduac; certaco mintçatuco da, nihorc aditcen ez tuen). Hainitz hitzcuntça mueta dira Munduan, dioste Apostolu hunec berac oraino, eta guciac dira mintçoac, gauçac aditcera emaiten tuztenac. Ordea baldin hitçac cer erran nahi duen ez baldin badaquit, barbaro içanen naiz mintço naicenarequico, eta halaber barbaro içanen da, niri hala mintço çaitana.

Hemendic erran nahi ceraven Apostoluac, Jaincozco gauçac irakhatsi behar direla Eliçaren onetan, eta progotchutan, hitz, eta hitzcuntça adi ahalditezquenez, berniçaduracic, eta tornuric eman gabe, lanoqui, eta garbiqui guztiec adi ahal deçaqueten beçala, eta bertcela, ezta jeusetaco cerbitcatcen, ecin adi ahal ditequen hitzcuntça. Hargatic bada lehenago gure Eliçaren lehenbico abiaduran bathayatcen cirenec, Espiritu Saindua errecibitu, eta harequin batean içaiten çuten hitzcuntça guztien aditceco, eta hetaz mintçatceco dohaina: *Venit Spiritus Sanctus super eos, & loquebantur linguis. Aci. 19.* Dohain hunen gatic Apostoluac ere Jaincoari emaiten ciotçan esquerrac: *Gratias ago Deo meo, quòd omnium vestrùm linguâ loquor. I. Cor. 14. Aug. Ps. 18.* Ceren guztien hitzcuntçaz mintçatcen baitcen.

Eta baldin Jaincoac bere Eliçari eman ez balio dohain handi hau, Munduan nola predicatuco cen haren fede saindua? eta baldin predicatu, eta irakhalsi içan ez baliz escola saindu hau, nola ikhasico guenduen salbamenduco eguinbidea?

Ordea oray bathayatcen direnec hitzcuntça guztien aditceco, eta hetaz mintçatceco dohain hau ez içan-arren; hargatic ecin erran diteque,

hei-ere eṭçayela emaiten Espiritu Saindua bathayo sainduan. Ceren orduco fedea, eta orduco bathayo bera ditu orai-ere gure Eliça-Ama sainduac. *Una Fides, unum Baptisma. Eph. 4.* Ezta fede bat, eta bathayo saindu bat baicic, dio Apostoluac. Eliçaren ordea lehenbicico abiaduran, eta eguiazco haren fede saindua Mundutic hedatu behar cenean; hunelaco dohainez, eta miracuilluez haci, eta bazcatu behar ciren hainitz gende federa itçul-arazteagatic, hala dio Gregorio Aita Saindu Sainduac. *Hæc necessaria in exordio Ecclesiæ fuerunt, ut enim ad fidem cresceret multitudo credentium miraculis fuerat nutrienda. Hom. 29. in Evang.* Hunetacotçat Dotor saindu hunec ekhartcen darocu çuhaitz landaren comparacino bat, gauçaren hobequiago adiarazteco. *Quia nos cùm arbusta plantamus, tamdiu eis aquam infundimus, quousque in terra jam coaluisse videmus, at si semel radicem fixerint, irrigatio cessabit.* Çuhaitz landareac landatu berrian urtzatcen, edo urez frescatcen, eta heçatcen tugu, lurrean har deçaqueten artean; bainan behin hartuz guero, erroac, eta çainac hedatu eta egotciz gueroztic, ezlute guehiago urezco frescadura beharric.

Hargatic dio Apostoluac-ere, hitzcuntça guztiez mintçatceco dohaina dela, ez Guiristino leyal fedea harturic, fedezco gauçac sinhesten dituztenentçat, baicic infidel oraino federa itçuli eztirenen seinaleçat. *Linguae in signum sunt, non fidelibus, sed infidelibus. I. cor. 14.* Miracuilluaren berritasunaz federa muguida citecin amoreagatic, Glosac dioen beçala. *Ad fidem novitate miraculi moventis. Glos. interlin.* Gauça bera dio Nicolao Lyrac: *Non pro Fidelibus, qui jam credunt, sed Infidelibus, ut Prædicatores Evangelij possint ab omnibus singularum linguarum intelligi, & sic converti ad Christi fidem. Nicol. Lyr. I. cor. 14.* Ezta Miracuillu hau Guiristino leyal fedea sinhesten dutenen gatic, baicic fedearen eçagutçatic campoan direnentçat eta Evangelioaren predicariac cein-nahi hitzcuntcetaco gendec adi ahal detçatentçat, eta federa itçul ditecintçat.

Lehenago Gende mueta batean ohi ceu Cure Eliça-Ama Saindua, eta orduan guztiaç mintçatcen ciren, Mundu-herri gucico hitzcuntça guztiez: Agustin Eliçaco Dotor handi harc erraiten darocun beçala. *Anteà in una Gente erat Ecclesia, ubi omnium linguis loquebantur. Aug, Tract. 32. in Joan. & Tom. 10. fer. I. de fer. 4. Pent.* Bainan orai ezta beharric, ez premiariç hala mintçatceco: Ceren Eliça-Ama Saindua nola baitago Mundu guztitic barrayatua eta hedatua. *Quia jam ipsa Ecclesia linguis omnium loquitur.* Hura bera mintço da Mundu-herri gucico hitzcuntcez. Hargatic erraiten dorocu Agustin sainduac-ere, baldin nihorc galde badeçagu; JESU-CHRISTO Gure Jaunac agundu, eta prometatu çuen beçala, haren baithan sinhetsico çutenac: *Linguis loquentur novis.* Hitzcuntça berriez mintçatu cirela: nola-bada orai bathayntuoc, eta Eliçan garenoc ezgaren mintçatcen cein-nahi hitzcuntça moetaz? Dio,

Dotor Saindu hunec, ihardetsi hehar dugula : *Loquor omnibus linguis, quia in eo sum CHRISTI corpore, quæ loquitur omnibus linguis, ubi suprâ.* Mintço garella hitzcuntça guztiez: Ceren baitgaude JESU-CHRISTOREN gorpputcean, ceina baita Gure Eliça-Ama Catholica Saindua, Munduco hitzcuntça guztiez mintço dena; ceren Mundu herri guztian baitago hedatua eta barrayatua. Ezta Munduan lekhuric hara fedea hedatu eztenic: *In omnem terram exivit sonus eorum, & in fines orbis terræ verba eorum.* Ez-eta-ere herriric hain urrunic non egungo egunean ezbailiteque fede saindua irakhats, eta predica, lehenago beçala hitzcuntça berriez mintçatceco miracuilluric eguin gabe; Halacotz beraz ezta premiaric gure demboran, bathayatcen eta bathayatuac garenoc içan deçagun bat-banazca hitzcuntça guztiez mintçatceco dohaina. Eta hala baldin neque eta gaztigu handia içan bacen bekhatuac, Mundura garrayatu cerocun hitzcuntcen nahastura; halaber Jaincoaren dohain eta urri-caltçapen handia içan cen, hitzcuntça barrayaturic ceudecinac, bere Eliçari irakhastea, eta bide hartaz hain pena, eta neque handiaren khentcea.

Eta nituquelaric oraino asco bertce arroçoinamendu eguiteco hunen gainean aippatceco, uzten tut guztiaç: ceren ezbaitut uste nihor causitu, Escualdunac baino, fede, eta froga seguragoric eman ahal deçaquedanic; denaz gueroztican gauça bat hain jaquina, eta egun guztiaz bat-bederac frogatcen duena; Escualherritic ilkhitcen garen beçain laster, hitzcuntça arrotcen premian jartcen garella. Eta oraino bertce-alde, geure herritic ilkhigabe Escual-herrian berean barrena, geure artean dugu pena, eta neque ondicozco hau; ceren geure hitzcuntça propiala baitarabilagu hain nahasia, eta truccatua, non Escualdonoc gueroç pena eta neque baitugu elkharren aditceco.

Ezperen bat-bedi Nafarroa-beherearra, edo çuheroarra (*sic*) Bizcaitarrarequin, edo Alabesarequin, eta Ochagabiarra, edo Erroncalesa Baztandarrarequin eta Lau-urtarrarequin; edo cein nahi Escual-herrico aldebatecoa bertce alderdicoarequin, etu ikhusico duçu, elkhar ecin adi deçaquetela; aiticitic elkharri idurituco çaizquio Escualdunac direlaric, eztirela hitzcuntça berecoac. Eta hau heldu da, Escualdunec bere hitzcuntça propiala ez estimutan iduquiz, eta Munduco bertce gaineraco Gendaqui guztiec bere hitzcuntçan isquiribatcen duten beçala, Escuaraz isquiribatu faltaz.

Ecen cembat-ere liburu isquiribatcen bailituzte, hetaric guehienac dacusquigu, isquiribatcen tuztela, ceinec bere herrico hitzcuntçan; hau da gauça bat egun guztiaz ikhusten dena. Eta oraino hetaric hainitcec daquitçatelaric hainitz hitzcuntça arrotz, hequien herricoa baino, lekhu eta Erresuma guehiagotara hedatcen direnac; Guztiarequin-ere bere

herrico hitzcuntçarentçateco amodioa dela causa, eta bere herriaren ohoratceagatic, eta progotcharazteagatic, bere hitzcuntçan isquiribatu tuzte bere liburuac; eta oraino bertce-alde, bereac hala isquiribatcea, ez azqui-etsiz, bertce hitzcuntcetana isquiribaturic daudecinac, gambiatcen eta itçultcen tuzte bere herrico hitzcuntcetara.

Hargatic ordea dacusagu hitzcuntça hec bethiere dohacila aitcinatuz, hedatuz, eta edertuz; ezta ordea cer miretsi, ceren liburuac baitira cutchac, eta arkhac, ceinetan hitz, eta solas ederqui, eta ongui erranac, eta pentsatuac, galdu gaba baitaude altchaturic beguiratuac, eta goar-datuac; eta hala manera hunetan ikhasten da ongui, eta ederqui mintçatcen, eta bide beraz hitzcuntçac-ere dohaci bethi aitcinatuz, hobeagotuz, eta edertuz.

Eta baldin bertce hitzcuntcetana beçala, içan balira lehenagotic liburuac Escuaraz isquiribatuac, hetan beguiratuac, eta altchatuac egonen ciren gaucen icenac, eta mintçatceco hitz, eta manera escuarazcoac; eta guisa hunetan baliatu guinaqueen hetaz mintçatceco. Bainan nola içan baitira hain appurrac, eta gutiac escuaraz arguitarat ilki diren liburuac; hargatic aldebatetacoac ecin jaquin cetçaquen, bertce alderdico hitz guztiac, eta gaucen icenac: Eta-hala demborarequin, edo-cein lekhuman joan içan dira hitçac, eta gaucen icenac, appurbaua emequi-emequi bertce gauça guztiac beçala, truccatuz, eroriz, eta ahantciz.

Lehenago Espainia guztian, eta Francisco hainitz herritan Escuaraz bertce mintçoric etclarican; egun dacusagu cein herri gutitan mintço garen Escuaraz: eta oraino mintço garenoi-ere escaz çaiçquigu hainitz hitz, eta icén lehenagocoetaric: Ceren hequien lekhuman hartu baititugu bertce batçuec hitzcuntça arrotcetanic; eta hec-ere ez guisa berecoac guztiac; ceren batec hartu baitu hitzcuntça batetic, eta bertceac bertetic.

Miresteco gauça da, eta oraino nihori guti gogoratcen çayoçna: Mundu guztian eztelanic, Escualduna baino, gendaqui edo leinu nobleagoric, odol hobeagotacoric, adimendu çorrotz, eta biciago duenic, cein-nahi-den gaucetan antçatsuagoric, natureleçaz ethorcorragoric, cerbitçatceco leyalagoric, manatceco emeagoric, eta çuhurragoric: itsasoz, eta leihorrez suharragoric, eta bihotz hobetacoric; baquean baquezcoagoric eta amultsuagoric; guerlan eta guerlaco gaucetan halaber guerlosagoric, eta nihor berdintcen çayoenic; prestutasunean hurrantcen çayoenic, eta Jaincozco gaucetan abantail eramaiten dioenic; nahiz den Noblea, nahiz ez; nahiz aberatsa, nahiz probea, edo erromesa, nahiz handia, edo den ethorquiric appalenticacoa; nahiz dohala manatcera, nahiz cerbitçatcera; Egun guztiaz ikhusten dugun gauça da, Escualdunac gauça guztietan bere burua eçagutcera-eman-arazten duela; nahiz dohan

Franciara, edo Espainiara, edo Indietaco cein-nahi-den partetara, edo nora-hahi (1) den dela. Eta-halatan da hain estimatua, maitatua, eta preçatua, non Mundu guztiac bertce leinu, eta gendaqui guztien gainetic nahiago baitu Escualduna bere aldean.

Haut guztiac hunela ikhususic; (ecin nagoque erran gabe, cein achola guti, eta artha appurra içatu duten Escualdunec bere Escuaraz, eta deusez-ere baldin eguin ahal badaquie erantçuquiric; da gauça hunetaz).

Halacotz, bada Escualdunen pena eta neque hau iccusiric hasi nintcen Escuaraz, Latinez, Francesez eta Espainolez hitztegüi baten moldatcen; bidehartaz Escualdun guztiec eta bereciqui ene hertar Lau-urtarrec cembait fagore, eta laguntça içan leçaten gatic; bere herritic camporat ilkhi gabe, cembait hitzcuntçaren parte bederen ikhasteco. Ordea noiz-eta-ere uste bainuen aiticina neramala neure obra, gogora citçaitan, deusguti balio çuela ene travailluac, eta cimendugabeco obraren pare içanen cela: baldin lehenbiciric ezbanituen moldatcen Ezcuarazco lehenbico hatsapenac, Latin ikhasteco; ceren haut baitira cein-nahi hitzcuntçaren cimenduac, çainac, eta erroac.

Halacotz bada JAUNAC, orai hemen daccartzquetçuet, eguin ahal tudan maneran moldatuac eta eguinac; non hauquien bidez estudiatu nahi duenac, Escuaraz Escual-herritic ilkhi gabe, ikhas haitetçaque Latinezco Declinacionac, bai-halaber Conjugacinoac: eta lehenbico hatsapen guztiac. Eguia hunen lekhuco, fiador, edo berme, eta lehenbico Escual-herrico originaltçat emaiten dut ene seme Agustin (ceina baita presenteco carta edo guthun gomendiozco hunen eramailea hau.

Ordea nola ni Aita eta obraren jabe becala partitia bainaiz, menturaz bacenduquete cembait arroçoin ene hitcetän ez triccatceco; ceren ordinariozqui bat-bedera bere gaucetan itsu baita; halacotz bada orduan ezta bertce bideric, baicic frogara joaitea; hartaracotz bada, satifamendu osoa hartu nahi duenac, froga beça originalahau bera, eta galdeguin betço escuarazco cembait perpauç, Latinez ihardesteco. Escuara Latinera gambiaturic; edo bertcela eman beço cembait Autor, edo Liburu Latinezco escuaraz (2) esplicatceco; eta esperantça dut (escuaraz bertce hitzcuntçaric ez jaquin-arren, eta oraino Escual-herritic ilkhi eztelarian) halere hunen ahoac, eta mihiac bathere ahalquetan eman gabe, aiticic ohorezqui eguietan atheraco nautela.

Eta gauça hunen hunela ikhustez uste dut ecen JAUNAC, atseguin eta placer içanen duçuela, Agustin Eliçaco Dotor handi harc dioenaren

(1) Nora-nahi.

(2) Escuaraz.

eredura: *Quia omnium linguarum scientia ferè ab omnibus desperatur, suæ gentis quisque maximè studet, ut noverit. D. Aug. lib. 10. doct. cap. I.* Ceren nihorc ezbaititu uste ikhasi Munduco hitzcuntça guztiac (dio) bat-bedera gogotic dago, eta ahalaz entseyatcen da bere herricoaren ikhastera, jaquitera, eta aitcinaraztera. Eta hau hala da; ecen iracur badetçagu istorio çahar eta herri guztiac, eta oraino Eliçaco Aitac, eta Doctorat, hetan causituco dugu; egundainotic Munduco gendaqui guciec estimu handitan iduqui içatu tuztela, ceinec bere herrico hitzcuntça.

Erromaerez mintço delaric, dio Agustin sainduac: *Opera data est, ut imperiosa Civitas non solùm jugum verum, etiam linguam suam domitis gentibus per pacem societatis imponerent. D. Aug. lib. 19. Civit. cap. 7.* Etciren content Erromarrac garaitcen eituzten gendeac bere azpiratceaz, eta bere manera errendarazteaz; aitcitic bere hitzcuntçaren hedarastera entseyatcen ciren: ceren ezbaicercitçaten hambat, Erresuma baten garaitcea, eta irabaztea, nola garaitu, eta hei bere bitzcuntçaren har-araztea. *Bodin. lib. de Republic. top. 10.*

Halaber isquiribatcen du Tito-Livioc [*lib. 9.*] Erromarrec Espainia irabaci, eta bere menera çutenean: Espainolei har-araci ceravela bere hitzcuntça, eta aitcinarat ere hobequiago iraun ceçan gatic, eguin cituztela Huescaco hirian escolac, ceinetan cientciac, eta bertce gainerraco letrac, irakhasten baitciren-Erromaco hitzcuntçaz.

Oraino badio Tito-Livio Autor berac; Erromarrec eguin çutela bertce leguebat, ceinetan manatcen baitçuten, hequien azpico eta meneco ciren Erresumetan etcedila eguin testamentic, ez contraturic, ez cridaric, ez sententciarici ez eta ere edo-cein nahi isquiriburic batere, Erromacoaz bertce hitzcuntcetana.

Erromaren contra jaiqui içan cen Hetruria, ceina baita Toscana Italian. *Valer. Mazim. lib 2. de Institut. antiq. Bainan etcicçayon baliatu;* ceren garaitu baitçuten eta eguin cioten leguea, nihor etcequiola mintça Justiciari Erromarren hitzcuntçaz baicic. Legue hunec iraun çuen Espainian borts ehun urthez baino guehiagoz; eta hala Espainiaco lekhu guehienetan galdu, eta iraungui içan cen lehenagoco hitzcuntça, ceina baitcen Escuara, lehen erran dudana beçala, eta haren orde guelditu cen Erdara Erromarren hitzcuntçatic hartua, ecen hala erran nahi du (*Romance*) istoriolarien eredura, ceren erran nahi baitu, *Erromaco antrera, edo Erromaco antez.*

Oraino baçuten Erromarrec bertce leguebat bere artean haguiz hertsia, nihoren ez entçuteco bere hirico-etchean (ceina deitcen baitçuten) *Senatus*, (erran nahi baitu cargundundegua, edo cargudunen etchea) baldin Erromaco hitzcuntçaz mintçatcen ezbaiciren; non handic obligarazten bitci-

tuzten (*sic*) hequin eguiteco çuten puztiac, Latinez mintçatcera, Agustin sainduac dioen beçala: *Curabant ergo Romani, ut, & in Provinciis plurimi Latinè loquerentur, ita ut Hispanias, & Gallias Latinas prorsus fecerint, veteribus illarum gentium linguis abolitis. Et in Senatu nullos audierint legatos, nisi Latinè verba facientes. D. Aug. lib. 19. Civit. Dei. cap. 7.* Eta hala egundaino nihorc-ere baino guehiago hedatu, eta aitcinatu çuten bere Imperioa, edo Erresuma, bere hitzcuntça Mundutic hedatuz, eta barrayatuz; ceren bide hunetaz bere azpicoac hobequiago gobernatcen, beguiratcen, eta manayatcen baitcituzten; ordea irabasten cituzten herriei-ere hargatic irabaztearequin batean, har-arazten cioten bere hitzcuntça.

Eztira gutiago laudori-oztatcecoac Arabiaco gendeac; ceren hec-ere artha bera içan baitçuten Asian, eta African bere hitzcuntçaren har arazteco, eta ahalaz hedarazteco.

Hec guztiec bere hitzcuntçarentçat içan çuten beçambat amodio, içan çuten halaber Munduco cein-nahi bertce gendaquic-ere, ceinec bere Erresumetaco hitzcuntçac galtcera utci gabe, beguiratceco, eta aitcinarazteco; ecen azquen Toscanac içan çuen Erreguea Erromarrec garaitu baçuten-ere, halere. egundaino Erromarren letrac, eta hitzcuntça ecin har-araci cioten, handican erran çuen Catonec: *Latinas Litteras ut reciperet, persuaderi non potuit.*

Guciec baino hobequiago eçagutu çuten Greciarrec, cein estimu handitan iduquitceco, eta beguiratceco duten ceinec bere Erresumetaco hitzcuntçac: baihalaber galtcera, eta erortcera uzteaz, cembat calte heldu den Erresumetara, eta estimutan iduquitcetic cembat ontasun, eta progotchu. Ecen ikhusi çutenean bere Imperioa, edo Erresumac eroriz, eta galduz cihoaztela: Eguin çuten leguebat ceinetan manatcen baitçuten, Greciaco Muthilco, eta Escolan guztiac escola citecila Erresuma bereco hitzcuntçan, baihalaber legue, eta çucen guztiac irakhats citecila hitzcuntça hartan berean, eta hala dio Justinianoc. *Justinian. lib. 2. de veteri jure.* Lehenago Greciaco hitzcuntçaz ohi ceudecila isquiribatuac orai *Codice* deitcen den çuceneco liburuan dauntçan legue eta çucen guztiac; baihalaber Aristotelesen liburuac lehen hequien hitzcuntçaz isquiribaturic ohi ceudecinac, ceren galdu baitcitçaitzen, berriz berriro bere hitzcuntçara itçuli, eta gumbiaraci ⁽¹⁾ cituzten, Thomas Dotor Ainguiruarenac eguin cituzten beçala. Eta bide hunetaz eguin cioten hambat ontasun eta fagore bere Erresuma, ja erortcera cihoanari; non eraiqui, eta altchatu baitçuten, eta handic Mundu-herri gucico

(1) Gambiaraci.

genden artean irabaci, eta ardietsi çuten jaquintsunen icena, eta omena.

Eztut bada dutatcen JAUNAC, çuec-ere eguiazco Escualdun, eta Lau-urtar beyla eztuçuela amodio, eta borondate bera ceven berriarentçat, eta herrico hitzcuntçarentcat. Esperantça horrec neure baithan mugidutaric eta beroturic, heldu natçaitçue neure obrattoaren ofrendatcera, aguian bide hunetaz gure herrico semeec cembait laguntça, edo fagore errecibituco dutela; eta oraino, cembait lo datçan-ere Escuaraz isquiribatcera, behar-bada atçar-aracico; arren beraz errecibi çaçue Evangelioco emacume pobretto haren cornadua errecibitua içan cen beçala: eta çuen borondatea hala delarican ilkhico da arguitara. Hau da mandari bat aitcinat berri jaquitera beçala dohana, eta bide-navar ikhustera, norc cer beguitarte eguinen dioen; ceren perpausen esplicacinoa [ceina Francesez deitcen baita *les Particules*, eta Espainolez, la *Platiquilla de las Oraciones*, baihalaber *Syntaxa*] eta bertce gaineraco Gramaticari Dagozcan gauçac, hunen beguira baitaude, hunec cer iragaiten den, edo nolaco beguitarte içaiten duen eta nor nola mintço den ikhusi, eta jaquin, eta ondoan; camporat ilkhitceco, edo barrenan guelditceco.

Eta baldin ene obra bere baithan ezbada ona, sinhets çaçue bederen, ona dela Theologoan erreguelaren eredur: *Quidquid agant homines, intentio judicat omnes*. Cer-nahi daguiten Guiçonec, intencinoac neurçenttu hequien obrac, eta-hala JAUNAC sinhets çaçue bethiere naicela borondate, eta bihotz on, batequin,

Çuen cerbitçari Ctipiena, eta obligatuenu,

J. D'ETCHEBERRY,

Saraco Dotor-Miricua.

